

KULTUR AGENDA

Ekitaldi eta ospakizun uholdea, maiatzean

Asteburu honetan bertan, jardunaldi bereziak antolatu dira Sagardoetxean, eta igandean Plaza Dantzak egingo dira. Datorren astea, berriz, Aniztasun Astea

izango da. Bestela ere, hamaika ekitaldi izango dira: antzerkia, San Isidro, Ilar Eguna, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea, Zaharren omenaldia...

GAURTIK igandera, loreen polinizazioaren inguruko jardunaldiak izango dira Sagardoetxean, eta bestalde, igandean, plaza dantzak izango dira Joseba Barandiaran plazan, eguerdian.

Astelehenetik aurrera, berriz, ekitaldi uholdeak harpatuko du Astigarraga, hilabete osoan zehar.

Aniztasun Astea, San Isidro Eguna, eta Ilar Eguna

Ekitaldi berezi eta nabarmenak izango dira, batetik. Esate baterako, astelehenean Aniztasun Astea hasiko da, eta igandera bitartean, hainbat tailer, antzerkia, argazki erakusketa, janari dastaketa edota zine foruma egingo dira.

Bestetik, hilaren 15ean San Isidro, baserritarren eguna ospatuko da, Kaxkoan eta Zamalbide-Bentak auzoan. Azken honetan, festak jarraitzen izango du hurrengo bi egunetan ere.

Era berean, aurten ere ez du hutsik egingo Ilar Egunak; maiatzaren 22tik 24ra bitartean ospatuko da.

Zaharren omenaldia eta Bertsolari Txapelketa

Beste bi ekitaldi berezi ere izango dira hil honetan; maiatzaren 10ean omenaldia egingo zaie herriko edadetuei, meza eta bazkari batekin. Bestale, hilaren 10ean, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako aurreneko sailkapen saioa jokatuko da Astigarragan.

Literatura, antzerkia, Zilegi Eskolak eta gehiago

Hilero bezala, literatura solasaldiak eta umeentzako ipuin kontaketa ere izango dira maiatzean. Gainera, Herri Eskolako ikasleek beste antzerki saio batzuk ere prestatu dituzte. Bestalde, Zilegi Eskolak izango dira (aurrez izena eman behar da), eta hainbat musika emanaldi ere prestatu dira. II



Ilbaldia egin zuten lehengo igandean. Argazkia: Sagardoaren Lurraldea.

SAGARDOETXEA

Sagarra eta sagardoaren inguruko hainbat ekintza prestatu ditu Sagardoetxeak, udaberrirako

Lehengo igandean ilbaldia antolatu zuen Sagardoetxeak, Sagardoaren Lurraldea ezagutzeko; Astigarragan hasi, eta Heranitik pasa ondoren, Usurbilen bukatu zuten buelta parte hartzaileek. Era berean, datozen egunetan beste hainbat ekintza antolatu dira. Batetik, gaurtik igandera bitartean, loreen polinizazioaren inguruko jardunaldiak egingo dira. Eta bestetik, maiatzaren 24ra arte aukera izango da Sagastiak loretan eta ardiak larretan argazki lehiaketan parte hartzeko, Sagardoetxeo facebook omallean. II

EGITARAUA

Malatzak 3, Igandea:

12:30, Plaza dantzak, Joseba Barandiaran plazan.

Malatzak 4, astelehena:

09:00-13:00, Dinamizatzailea, KZ Gunean.

Malatzak 4-10: Aniztasun Astea:

Malatzak 4, 17:30, kultur aniztasun artean bizi eta gure burua kultur aniztasunean ezagutzeko tailerra, Ikastolan.

Malatzak 7, 19:00, Trostan antzerkia, Joseba Barandiaran plazan.

Malatzak 7, Musika anitza herriko tabernetan, pinbopotea girotzeko.

Malatzak 8, 18:00, Zine Foruma, gaztelekuan.

Malatzak 9, 12:00-14:00, Janari Anitza; hainbat herriko janari dastaketa eta musika emanaldiak, Joseba Barandiaran plazan.

Aste osoan zehar, ikastolan, atzerriko etorritako gurasoek beren herriko kultura, ohitura eta janaria ezagutzera emango dituzte.

Aste osoan zehar, argazki erakusketak herriko tabernetan.

Malatzak 6, asteazkena:

09:30, Zilegi Eskola. Zumba. Doan, kultur etxean. Izenematea: 607 610 687 edo astigarraga@aek.org.

19:30, Musika Eskola ezagutzeko bilera informatiboa.

Malatzak 9, larunbata:

11:00, Musikariaren Autobusa kontzertu pedagogikoa eta instrumentuak probatzeko aukera, Musika Eskolan.

11:30 eta 17:30, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen faseko saioak, kultur etxean. Sarrerak salgai egunean bertan.

Malatzak 10, Igandea:

17:15, LH4ko ikasleen antzerki emanaldia, kultur etxean: A ze ametz arraroa.

Malatzak 13, asteazkena:

17:15, LH4ko ikasleen antzerki emanaldia, kultur etxean: Zirkio aldrebesa.

Malatzak 14, osteguna:

18:00, Ipuin kontaketa: Betiko. 3 urtetik gorakoentzako, kultur etxean.

Malatzak 15, ostirala, San Isidro:

18:00, Prozesioa eta meza.

Ondoren, hamaiketako Gure Izarran, eta goizean zehar,

Astigarragako baserrietako barazkien erakusketa.

12:30, Idi demak, eta Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariek.

14:30, Bazkaria eta baserriar zaharrei omenaldia Gure Izarran.

Malatzak 15, ostirala, San Isidro:

Zamalbide-Bentak auzoan:

11:45, Prozesioa eliza inguruan eta 12:00etan meza.

12:45, Txupinazoa eta salda hartzea, eliz atarian.

13:00, Bertsolariek.

14:00, Lagun arteko bazkaria

Auzolan elkartearen. Txartelak salgai, maiatzaren 12ra arte: 615 725 869 / 669 423 252.

18:00, Idi probak, doan.

Malatzak 16, larunbata:

Haur eta gazteen eguna, Zamalbide-Bentak auzoan: 10:30etan jolasak, puzgamiak eta tailerrak; 13:30etan haur bazkaria; 14:30etan puzgamiak; 15:30etan apar-festa; 16:00etan mus txapelketa; 17:00etan txokolate-jatea; 20:30etan afari herrikoia

Malatzak 17, Igandea:

Eretirituen eguna, Zamalbide-

Bentak auzoan: 12:00etan meza; 13:00etan Murua eta Lizaso bertsolariek eta salda, eliz atarian; 14:00etan erretirituen omenezko bazkaria musika eta bertsolariekin, eta 18:00etan herri kirol festa.

Malatzak 18, astelehena:

09:00-13:00, Dinamizatzailea, KZ Gunean.

Malatzak 20, asteazkena:

18:00, Hezkuntza hitzaldia kultur etxean: Posible al da mugak jartzea zigorrik gabe?.

*Malatzak 21 edo 27 (zehazteke):

17:30, Haurren bertso jaialdia kiroldegian.

Malatzak 22-24: IV. Ilar Eguna:

Malatzak 22, 18:30, Hitzaldia, udalburua: Nekazaritza historian hazia-ren garrantzia

Malatzak 23, 11:00, udalburuko kontzejupetik abiatuta, barazten bisita.

Malatzak 24, 10:00, Ilar azoka berezia Foru Plazan.

Malatzak 23, larunbata:

17:30, Haur antzerkia: Capra cu trei iezi, Luceafarul konpainia emumania-raren eskutik, zuzeneko euskerazko itzulpenarekin. Kultur etxean.

Malatzak 24, Igandea:

11:00, Sagardo dastatze gidatua Zapiain sagardotegian, Izenematea Sagardoetxean: 943 55 05 75 edo info@sagardoarenlurraldea.com.

Malatzak 25, astelehena:

19:30, Literatur solasaldia, liburutegian, gaztelera: Julio Llamazaresen Distintas formas de mirar el agua.

Malatzak 27, asteazkena:

17:15, LH3ko ikasleen antzerki emanaldia, kultur etxean: Amona txorora.

18:30, LH6ko ikasleen antzerki emanaldia, kultur etxean: Gau miste-riotsua.

Malatzak 27-28:

Zilegi Eskola. Zeinu-hizkuntza (hastapena). Nabarra Oñatz kalea 3ko lokalean, doan. 607 610 687 edo astigarraga@aek.org.

Malatzak 30, larunbata:

09:00, Pintura erakusketa Joseba Barandiaran plazan.

11:00-13:00, haurrentzako arte txoko irekia.

Malatzak 30, larunbata:

12:30, Antzerki musikatua Sagardoetxean: Markesaren alaba eta Luixen istorioa.